

Lehen Hezkuntza

Ekintza

ZERURA BEGIRA: ZER FORMA BITXIAK!

HELBURUAK

- Hausnartzeko denbora hartzea.
- Sormena indartzea; sortze-marrazketa piztea.
- Sentimenduak eta sentsazioak adieraztea.

LANDUTAKO KOMPETENTZIAK

- Giza- eta arte-kultura
- Hizkuntza-komunikazioa
- Autonomia eta norberaren ekimena

GARAPENA

Kanpoaldera irtengo gara ikasleekin, zeruan hodeiak dauden egun batean; hobe da hodei asko, kolore desberdinetakoak eta altuera desberdinetakoak dauden egun bat aukeratzea.

Ikastetxetik gertuko leku bat aukeratuko dugu, eta lurrean etzango gara.

1. Gogoeta pertsonala. 0Zeruari 10 minutuan behatuko diogu. galdera hauek edo antzekoak egingo dizkiogu gure buruari:

- Zer ikusten dut?
- Zer kolore ikusten ditut?
- Zer forma ikusten ditut?
- Formak eta koloreak estatikoak al dira? Mugitu egiten al dira?
- Zer sentitzen dut?

2. Ondoren, leku berean eseriko gara, eta bakoitzak zer nabaritu eta ikusi duen azalduko dio taldeari.

3. Berrito ere etzango gara, eta hodeiek sortzen dituzten irudiak aztertuko ditugu. Zer ikusten ari garen ondoko lagunari azaltzen saiatuko gara. **“¡Begira, begira, belaontzi bat ikusten ari naiz hor, kapitaina eta guzti!”**
“Bada, nik etxe bat ikusten ari naiz, tximiniatik kea dariola.”

4. Ikusten ditugun irudi berezien argazkiak egingo ditugu.

ERRINOZERO
BAT!ELEFANTE
BAT!

LUMA BAT!

ASTO BAT!

AURPEGI BAT!

Ikasgelarako jarduerak

5. Egindako argazkiak inprimatu edo proiektatu ostean, hodeien irudietan sentitu edo ikusi duguna **marratzuko dugu**. Askotariko marrazketa-teknikak erabil daitezke: arkatza (ikatz-ziria), akuarela, zur-pinturak, errotuladoreak... Bakoitzak nahi duena aukeratuko du.

6. Argazkiak eta marrazkiak erabilia, **erakusketa bat antolatuko dugu**. Irudi bakoitzaren ondoan, esaldi batek zer erakusten duen azalduko du.